



COVID-A DELA ETA PROTOKOLOA ETA SEGURTASUN NEURRIAK MENDIZORROTZEKO KIROL
ETXEKO ETA ZERKABARREN KALEKO KIROL ETXEKO BILERA GELETAN.

2020-10-29

ARETOEN EDUKIERA: 50 pertsona

BAIMENDUTAKO GEHIENEN EDUKIERA: % 50, hau da, 25 pertsona

Osasun agintarien gomendioei eta aholkuei jarraiki, eta arriskuak identifikatu eta aztertu ondoren, **babes neurriak ezarri behar ditugu** bilera geletan, koronabirusaren arriskua ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Dokumentu honetan jasotako neurriak etengabe berrikusiko dira, COVID-19aren inguruan **indarrean dauden araudiak eguneratzen eta egokitzen** diren heinean.

XEDEA

Protokolo honen helburua da identifikatzea COVID-19aren ondorioz beharrezkoak diren higiegi eta segurtasun neurriak zein elementuri eragingo dieten gehien, eta **neurri eta jarduketa** batzuk proposatzea **kirol etxeetako bilera gelak irekitzeko**. Dokumentu honetan, segurtasun eta prebentzio neurri orokorrak eta espezifikoko proposatzen dira, egoera berriari egokitutako jarduerak garatzeko.

NEURRIAK

- Gelen sarreran gel hidroalkoholikoa banatzeko gailuak jarriko dira, eta zainduko da gelak erabili aurretik eta erabili ondoren nahitaez erabili behar direla.
- Aireztapen sistema: Geletako batean ere ez dagoenez aireztapen sistemarik, atea irekita eduki beharko da une oro, eta ahal dela ez da aire girotua piztuko Mendizorrotzeko bilera gelan.
- Jendearen joan-etorriak bideratzeko behar diren bitartekoak antolatuko dira. Barrutirako sarrera mailakatua izango da, eta segurtasun distantzia egokiak gordeko dira. Geletara sartzeko korridoreetan geratzea saihestu beharko da.
- Pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun tartea gorde beharko da.
- Derrigorrezkoa izango da maskarak erabiltzea instalazioen barruan, segurtasun distantzia gorabehera.

Eusko Jaurlaritzaren dekretuak jasotzen duenaren arabera:

- 1.- Federazio organoen bilerak (gehienez ere 6 pertsona)
- 2.- Prestakuntza hitzaldiak. Arautu gabeko irakaskuntzaren irizpidea aplikatu: gehienez 25 pertsona eta dagokion distantzia gordeta.
- 3.- Kiroleneko jarduerak edo ikastaro ofizialak: aurreko ataleko irizpide bera.